Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

994

EBAZPENA, 2011ko urtarrilaren 31koa, Farmaziako zuzendariarena, Maite Ibarra Barrueta andreari Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) farmazia-bulego bat sortzeko baimena ematen diona.

Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba) farmazia bulego bat sortzeko Maite Ibarra Barrueta andreak aurkeztutako eskabidea ikusi da. Hauek dira oinarriak:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2009ko maiatzaren 25eko Aginduaren bidez, Vitoria-Gasteizko farmazia-eremuan farmazia-bulego bat sortzea bidezkoa zela erabaki zen.

Bigarrena.– Osasun eta Kontsumoko sailburuaren 2009ko irailaren 11ko Aginduaren bidez, farmazia-bulego hori sortzeko prozedurari hasiera eman zitzaiola jakinarazi zen eta farmazia horren jabetza lortzeko merezimenduak baloratzeko batzordeko kideak izendatu ziren.

Hirugarrena.– Balorazio-batzordeko kideak izendatu eta egin beharreko legezko izapideak egin ondoren, batzordeak 2010eko maiatzaren 6an hartutako erabaki batez lehiakideen behin betiko zerrenda onartu zen, puntuazioaren hurrenkerari jarraituz, eta 2010eko maiatzaren 28ko EHAAn, 100. zenbakian, argitaratu zen.

Laugarrena.– Aipatutako erabakiaren aurka ez zen errekurtsorik aurkeztu.

Bosgarrena.– Farmaziako zuzendariak, 2010eko uztailaren 5ean, ofizioa helarazi zion Maite Ibarra Barrueta andreari; horren bidez jakinarazi zion aurkeztutako merezimenduen balorazioan puntuaziorik handiena berak lortu zuela, eta ondorioz, ekainaren 27ko 338/1995 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako prozedurari ekin behar ziola (338/1995 Dekretua, farmazia-bulegoak sortu, lekuz aldatu, itxi eta jardunean jartzeko prozedurak arautzekoa). Halaber, ohartarazi zion xedapen horretan ezarritako epean eskatutako agiri guztiak aurkezten ez bazituen, deialdian parte hartzeari uko egiten ziola esan nahiko zuela.

Seigarrena.– Maite Ibarra Barrueta andreak Vitoria-Gasteizko udalerrian farmazia-bulego bat sortzeko baimena eskatu zuen 338/1995 Dekretuaren babesean, eta horrekin batera, dekretu horren 5. ar-

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

994

RESOLUCIÓN de 31 de enero de 2011, de la Directora de Farmacia, por la que se concede a Dña. Maite Ibarra Barrueta autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava).

Vista la solicitud presentada por Dña. Maite Ibarra Barrueta, de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava), y sobre la base de los siguientes:

HECHOS

Primero.– Mediante Orden de 25 de mayo de 2009, del Consejero de Sanidad y Consumo, se determinó la procedencia de la instalación de una oficina de farmacia en la zona farmacéutica Vitoria-Gasteiz.

Segundo.– Mediante Orden de 11 de septiembre de 2009, del Consejero de Sanidad y Consumo, se anunció el inicio del procedimiento para la creación de la citada oficina de farmacia y se nombraron los miembros de la comisión de valoración de méritos para el acceso a la titularidad de la botica.

Tercero.– Nombrados los miembros de la comisión de valoración y previos los oportunos trámites legales, ésta adoptó el acuerdo de 6 de mayo de 2010 por el que se aprobó la lista definitiva de concursantes admitidos y su clasificación por orden de puntuación que fue publicada en el BOPV n.º 100 de 28 de mayo de 2010.

Cuarto.– Contra el citado acuerdo no se interpuso recurso alguno.

Quinto.– Con fecha de 5 de julio de 2010, se remitió oficio de la Directora de Farmacia a Dña. Maite Ibarra Barrueta donde se señaló que, siendo la concursante que mayor puntuación obtuvo en la valoración de los méritos alegados, debía proceder de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.º del Decreto 338/1995, de 27 de junio, por el que se regulan los procedimientos de creación, traslado, cierre y funcionamiento de las oficinas de farmacia, con advertencia de que, transcurrido el plazo establecido en el citado precepto sin que aportara la documentación requerida, se entendería que renuncia a seguir participando en la convocatoria.

Sexto.– Con fecha 21 de octubre de 2010, Dña. Maite Ibarra Barrueta presentó solicitud de autorización de creación de oficina de farmacia en el municipio de Vitoria-Gasteiz, al amparo del Decreto

tikuluan eskatzen den dokumentazioa ere aurkeztu zuen.

Aurkeztutako agirietan ikusten denez, farmazia-bulego berria helbide honetan dagoen lokalean jarri nahi da: Rafael Alberti kalea 6, Vitoria-Gasteizko farmazia-eremuko 1.1.10 osasun-aldean.

Zazpigarrena.– Farmaziako zuzendariak 2010eko urriaren 29an ofizio bana helarazi zien prozedura honetan interesa izan dezaketen guztiei, batetik, prozeduran pertsonatzeko, eta bestetik, egoki iritzitako alegazio guztiak aurkezteko. Hala egin zen Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 79.1 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Francisco Javier eta Mara Etchaberry Arjiz jaun-andreak pertsonatu ziren eta, hartara, prozeduran interesatu-izaera eskuratu zuten; hala ere, ez zuten alegaziorik egin.

Zortzigarrena.– Francisco Javier Etchaberry Santamaría jaunak –30/1992 Legearen 31.1.c) artikuluan ezarritakoaren arabera– prozedura honetan interesatua denak alegazio-idatzia aurkeztu zuen 2011ko urtarrilaren 15ean, eta bertan, baimena emateko prozedura eteteko eskatu zuen; izan ere, haren ustez, Ibarra andreak farmazia-bulego berria sortzeko aukeratutako tokiak mugatu eta baldintzatzen du Etchaberry jaunak bere farmazia-bulegoa jartzeko aukeratutakoa, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salaren 2. sekzioan bideratzen ari den prozedura judiziala amaitzen duen epaiak Etchaberry jaunaren erreklamazioa baiesten badu.

Izan ere, Francisco Javier Etchaberry jaunak parte hartu zuen Vitoria-Gasteizko farmazia-eremuan farmazia-bulego berri bat sortzeko Osasuneko sailburuaren 2007ko maiatzaren 28ko Aginduaren bidez hasitako lehiaketan. Prozedura hartan, Ana Isabel Redondo Redondo andreari eman zitzaizkion bulegoa sortzeko eta jardunean jartzeko beharrezko baimenak.

Etchaberry jaunak, ordea, errekurtsoa aurkeztu zuen baimen horren aurka, administrazio-bidean lehenengo, eta bide judizialean gero. Errekurtso-idatziaren laugarren eskari gehigarrian, Salari berariaz eskatu zion kautelazko honako neurri hau hartzeko: Vitoria-Gasteizen farmazia-bulego berria sortzeko 2007ko maiatzaren 27ko Aginduaren bidez deitutako prozedura eteteko, honako hauek aintzat hartuta: gure inpugnazioaren arrazoibideek prozeduraren deuseztasuna eragin lezakete, farmazia-bulego bat esleitzeko prozedurak etetea ekarri dezakeen doktrina sendoa dago eta, azkenik, esleipen horrek kalte konponezinak eragin litzake.

338/1995, adjuntando la documentación prevista en el artículo 5 del mencionado Decreto.

De la documentación aportada, cabe apreciar que el emplazamiento del local donde se pretende la instalación de la nueva oficina de farmacia es en el n.º 6 de la calle Rafael Alberti, zona de salud 1.1.10 de la zona farmacéutica Vitoria-Gasteiz.

Séptimo.– De conformidad con el artículo 79.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el día 29 de octubre de 2010, por oficio de la Directora de Farmacia, se da traslado a los posibles interesados en el procedimiento para que se personen en el mismo y formulen las alegaciones que estimen convenientes D. Francisco Javier y Dña. Mara Etchaberry Arjiz se personan, adquiriendo de esta forma la cualidad de interesados en el procedimiento, si bien no formulan alegación alguna.

Octavo.– Por su parte, D. Francisco Javier Etchaberry Santamaría, al que en aplicación de lo previsto en el artículo 31.1.c) de la Ley 30/1992 se le tiene por personado en este procedimiento en calidad de interesado, sí formula escrito de alegaciones de fecha 15 de enero de 2011 en el que solicita se suspenda el procedimiento de autorización, toda vez que el emplazamiento elegido por la Sra. Ibarra para ubicar la oficina de farmacia de nueva creación limita y condiciona la futura ubicación que el Sr. Etchaberry pretendiera dar a su oficina de farmacia, en el supuesto de que la sentencia que pusiera fin al procedimiento judicial –que se sustancia ante la Sección 2.ª de la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco– estimara su reclamación.

D. Francisco Javier Etchaberry había participado en el concurso iniciado mediante Orden del Consejero de Sanidad de 28 de mayo de 2007 para la creación de una nueva oficina de farmacia en la zona farmacéutica Vitoria-Gasteiz, procedimiento que finalizó mediante el otorgamiento las oportunas autorizaciones de creación y funcionamiento a favor de Dña. Ana Isabel Redondo Redondo.

Esta autorización fue recurrida en la vía administrativa primero y en la judicial después por el Sr. Etchaberry, que en su escrito de recurso suplicó expresamente a la sala mediante el otrosí cuarto la adopción de la medida cautelar consistente en la suspensión del procedimietno de creación de nueva oficina de farmacia en la zona de Vitoria-Gasteiz, convocada mediante Orden de 27 de mayo de 2007, en cuanto que nuestra impugnación se encuentra basada en causas que pueden determinar la nulidad del mismo, existe una consolidada doctrina en cuanto a la posibilidad de suspender la ejecución de los procedimientos relativos a la adjudicación de una oficina de farmacia y al poder causar perjuicios de imposible reparación.

Bederatzigarrena.– 2011ko urtarrilaren 18an Farmazia-arloa Antolatzeko Zerbitzuak aldeko txostena egin zuen, farmazia-bulego berria sortzeko baimena eskuratzeko M.ª Maite Ibarra Barrueta andreak aurkeztutako dokumentazioari buruz.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Farmaziako zuzendariari dagokio ebazpen hau ematea.

Bigarrena.– Francisco Javier Etchaberry jaunak aurkeztutako alegazioak direla-eta, adierazi beharra dago administrazioarekiko-auzi bat irekita egotea ez dela nahikoa administrazio-prozedura baten izapidetzea geldiarazteko eta, are gutxiago, prozedura hori farmazia-bulego berriak sortzeko bada; izan ere, interes orokorreko ageriko arrazoien ondorioz, osasun-agintariek beharrezko diren lehiaketak deitu eta ebatzi beharra daukate, herritarrei farmazia-arreta behar bezala eskainiko badiete. Bestalde, kontuan hartu behar da 2007ko lehiaketa bide judizialean inpugnatu ondoren, beste bi lehiaketa deitu zirela farmazia-eremu berean (2008 eta 2009an), eta, gainera, 2010ean eremu horretan hirugarren farmazia-bulego bat sortu beharra dagoela deklaratu zen.

Bestalde, Etchaberry jaunak lehenago eskaera egina zion Salari farmazia-bulego berria sortzeko prozedura –hau da, berak parte hartu zuen prozedura– geldiarazteko, baina auzitegiak ezezkoa eman zion.

Edozein modutan, eta eman beharreko epaia eta haren ondorioak edozein direlarik ere, Administrazioaren abiapuntua da bere ekintzak legitimoak direla eta betearazi egin behar dituela, nahiz eta bide judizialean errekurrita egon.

Bigarrena.– Hortaz, batetik, aurkeztu diren merezimenduak baloratuta, Maite Ibarra Barrueta andreak izan du puntuaziorik handiena; bestetik, farmaziak sortzeko ezarritako prozedurari dagokionez, 11/1994 Legearen 34. artikuluan ezarritako eta 338/1995 Dekretuan garatutako xedapenak bete dira; azkenik, dekretu horren 5. artikuluaren arabera, lehiakideak agiri guztiak eta eskatutako epean aurkeztu dituela egiaztatu da. Horrenbestez, bidezko da interesatuari farmazia-bulegoa jartzeko baimena ematea.

Noveno.– Con fecha 18 de enero de 2011 el Servicio de Ordenación Farmacéutica emite informe favorable en relación con la documentación aportada por Dña. M.ª Maite Ibarra Barrueta para la obtención de la autorización de creación de la nueva oficina de farmacia.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– En virtud de lo establecido en el artículo 11 del Decreto 579/2009, de 3 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo, corresponde a la Directora de Farmacia dictar la presente Resolución.

Segundo.– En relación con las alegaciones planteadas por D. Francisco Javier Etchaberry debemos afirmar que la pendencia de un proceso contencioso-administrativo no es suficiente para paralizar la tramitación de un procedimiento administrativo y menos aún un procedimiento como el de creación de nuevas oficinas de farmacia, en el que evidentes razones de interés público obligan a la autoridad sanitaria a convocar y resolver los concursos que fueran necesarios para la adecuada cobertura de la atención farmacéutica a los ciudadanos. Nótese que con posterioridad a la impugnación en vía judicial del concurso correspondiente al año 2007 se han convocado dos concursos más en la misma zona farmacéutica (años 2008 y éste del 2009) y que durante el año 2010 se ha declarado la procedencia de instalar una tercera oficina de farmacia en la misma zona.

Por otra parte, El Sr. Etchaberry ya formuló a la Sala petición de paralización del procedimiento de creación de nueva oficina de farmacia en el que él mismo había tomado parte, petición que no obtuvo el respaldo del tribunal.

En cualquier caso, y sin prejuzgar el sentido de la sentencia que haya de recaer ni sus efectos, lo cierto es que la Administración parte de la presunción de legitimidad de sus propios actos y que dichos actos son ejecutivos aún cuando sean recurridos en la vía judicial.

Tercero.– Finalmente y siendo Dña. Maite Ibarra Barrueta la concursante que mayor puntuación obtuvo en la valoración de los méritos alegados, cumplidas las previsiones contenidas en el artículo 34 de la Ley 11/1994 y desarrolladas en el Decreto 338/1995, en relación con el procedimiento establecido para la creación de oficinas de farmacia y comprobada la adecuación de la documentación aportada y el plazo de su entrega a lo dispuesto en el artículo 5.º del citado Decreto, procede conceder la autorización de creación de la oficina de farmacia a la interesada.

Horiek horrela, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Maite Ibarra Barrueta andreari baimena ematea farmazia-bulegoa jar dezan, Vitoria-Gasteizko udalerrian (Araba), Rafael Alberti kaleko 6. zenbakian betiere, berak aurkeztutako agiriak aintzat hartuta.

Bigarrena.– Maite Ibarra Barrueta andreak, dena den, farmazia horretan jardun ahal izateko dagokion baimena lortu beharko du aurretiaz, honen bidez emandako baimenak indarra izango badu. Baimen hori eskatzeko, lau hilabeteko epea izango du –ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita–, eta 338/1995 Dekretuaren 7. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri emango zaie interesdunei; era berean, ohartaraziko zaie honek ez duela administrazio-bidea amaitzen eta, ebazpen honen aurka, egoki iritzitako bestelakoez gain, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dutela Zuzendaritza honetan edo Osasuneko sailburuordeari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 31.

Farmaziako zuzendaria,
SOLEDAD PALOMA ACEVEDO HERANZ.

Por todo ello,

RESUELVO:

Primero.– Conceder la autorización de creación de oficina de farmacia a ubicar en la calle Rafael Alberti, 6 del municipio de Vitoria-Gasteiz (Álava) a Dña. Maite Ibarra Barrueta, de acuerdo con la documentación por ella presentada.

Segundo.– Esta autorización queda condicionada a la obtención por parte de Dña. Maite Ibarra Barrueta de la correspondiente autorización de funcionamiento, que deberá solicitarse en el plazo de cuatro meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente resolución en el BOPV, y de conformidad con lo previsto en el artículo 7 del Decreto 338/1995.

Tercero.– Notifíquese a los interesados la presente resolución, con indicación de que no agota la vía administrativa y que contra ella podrán interponer recurso de alzada ante esta Dirección o ante el Viceconsejero de Sanidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación, así como cualquier otro que estimen oportuno.

En Vitoria-Gasteiz, a 31 de enero de 2011.

La Directora de Farmacia,
SOLEDAD PALOMA ACEVEDO HERANZ.